

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

#### **2019ko ekitaldian aurrekontu-aldaketa egiteko dosierraren behin-behineko onespena**

2019ko otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion Gasteizko Udalbatzak 2019ko ekitaldiko aurrekontu luzatuan aurrekontu-plantilla aldatzeko dosierri, Gasteizko Udaleko kontu-hartzaile nagusiaren lanpostuaren ordainsariak egokitzeko.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, 15 egun baliouduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onetsizat joko da dosierra baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 25ean

*Ogasun Saileko zinegotzia*

*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*